

# Y DE PERFIL.



*Harresienak dira  
egunerokoaren izenak  
ihesaren lekuetara  
zoazte bapainu keinuak*

*mundukartzelanegu  
besteak ostikopean  
dauden bitartean  
imaginazio ahulak  
aide biziatuak eta biok  
habitatzen dugun zelda  
dekoratzen digu*

*imaginazio ahulak  
dekoratzen digu  
aide biziatuak eta biok  
habitatzen dugun zelda*

Poema amaierak lehergailu prezisoenak baino kontu handiagoz ipintzen ditu, haize eta zurrunbazo ormadun kartzela aideetara asmoz. Ipuinlaria finean, poemak kontakizun eta pasadizuetan gorputzen dira, kasik bukaeraraino. Munduaz antza denez aspertua, hitzak kalkamonia gisara estekatzen ditu dedikatorietan. Idaztea sumintasunetik artera doan bide errebueltatsua, izar gorenik alkanzatzeko gauza izan ez eta bizitzari eusten dionarentzat, hura mozkortu behar iraunkorra denean.

Filologo eta lexikologoz osaturiko azken arroleboan ez da euskarazko irakasle ez den asko kausitzen. Batzu tradizio ezagutezinetako izen eta izenburuez urrats eta hitzak oro kateatuz, beste batzu liburu ezberdinetan jaso imajinez kolaketaz poemak burutzen dituzten artean, J.M. Aranok nahiago izan du munduaren afiziotik abiatzea.

Mundua, itsas-gaizto hau, lehorretik antzeman ezin dela eta hondoraino murgildu; kaiera ohi ez diren bagei ezin gainera baina zaldi izu bailiran aurre emanez jaurtikitzen ditu hitzak J.Miel Arano itsashondotarrak; hitzak estekatu eta laxu, bizitzaren ugal, Bileterik gabeko polizontea da peten tratanteez jasotako itsasbakterreko portuan, lehorrera atzerriratueta.

TERE IRASTORTZA

## LO ESKAERA

*Sustrairik gabeko aihena  
Edozein izen duzu politena  
Izatearen gabezia betirako  
Zure posesionean baitago*

*Izerdiamets ala heriotza  
Bizitzearen ordeztu  
Duda eta mudantza  
Esnatze ezabatu legeztu*

*Esposaturik har nazazu ametsa  
Beste erataria ezingo duzu eta  
Ahoztu dariztu zarena: loa  
Añ izkutu-izkutuko zorian edo birao!  
Zer dela eta ez nauzu ametituko?*



## TXALUPAZ PROMENADEA

(bikote preziatuena balantzan)

*Non bikote ezkonberri paregabea arrotz  
sentitzen den, lehen aldiz, gaua iraga-  
iten duten bitartean kamino ertzean,  
zetazko paineluak aidean, txantxeta ar-  
tikuloak atzean ...*

*Parixko bidea.  
Apuntadoreak: "hurraren errotazio higidura sentitze araino ..."*

*Gizonari andreak: - debru liztorra!  
(sexu zehatza) sar iezaidak miztoa  
piztu duk  
nigan istripu  
ezezagunaren izu  
eta luxuria  
bikoitza!*

*Andreari gizonak: - maradikazioa!  
(modelo baldarra) porederik banu...!  
barrabilean sartu zaidan  
zakil tentea atzeratu  
ze leku arraroa ...  
ostaturik balego  
akabatze ko hasitakoa!*

*Aingeru korukoak: - ... eta halere ludiziaren  
(ikaragarri perber- gonetan une zoriontsuenak ...  
/tsuak) AUSARTENA DA ZERUEN ERRAINUA!*

*Narratzaileak: Mementu honetan azaltzen da, estali erdia izan den  
eskenan, sikopata maskaratua, ikusleek konfundizioa antzemango dute,  
oihu, kristal hautsien hotsa, borroka, oihalararen errebueltua ...*

**BELVERrek NITYAri  
eta entzun nahi duenari**

*- "xuhurra!, patxadatsu gorde  
dun nire hilotza  
bizi galeraztaile horrek  
bihotz gabeko muskarra  
gorpu hondartuen irabazle  
halako demoni muxarra!"*

*- "ezkutuko minaren garaile  
inzezoaren beldur haizela  
atearen krisketa zaintzen"*

*nire arreba ankerrak  
hats urruna jeltzaile  
haztean ahantzi gara!*

*plater hutsetan sustraiak  
gure artean abere  
ongi gindoazen bidaiari*

*ILTZEEN uhartera korronteek  
jaurti gintuzten arte  
elkarjan lanetara anaia!*

## UMEAK ISILTARAZTEKO MAMUA

*(Zaldibiako esaldi batetik)*

*ixilik ez bazaude ume  
muskerrak bekainetara  
botako zaizkizu  
belarrietatik sartuko  
ixilik ez bazaude kume  
atea joz daude  
arrastaka dabiltzan  
izaki antzeko gauzak  
Mateo ziztu eta Matoe  
sakamentekasa ere  
umejalea eta  
lo ez bazara  
iluntzeko hamabietako  
kanpaiak jo arte  
ez zaizkizu irtengo  
ixilik ez bazaude putakume!*

## TXASTONA

*denbora arruntak  
aro modernoenak  
eguraldi zaharkituak*

*portzelana txuriak  
tilki-talka-tilki-talka  
orduan eta aguroago*

*euria farolen kontra  
tilki-talka-tilki-talka  
orduan eta aguroago*

*sikira egoera hau  
apurtuko zukeen egundoko  
erlojeri-ertzandagailu balitz ...!*

.....

*“preguntan de onde eu sou  
e non sei que respoender  
pois de tanto non ter nada  
xa non teño de onde ser”*

Celso Emilio Ferreira

*Begira nazazu!  
ea zertxobait badaramazun*

*baina, arren, ez portugesiñorik  
abegi txarrez hartu  
ez zikoitzkeriarik*

*bai, bufa bufa!  
besteok ere  
begiak baditugu eta  
bufa bufoia!  
guk ere  
badakigu zeharka behatzen*

*errepara ezazu!  
ea zuk zerbait zeurea badaramazun*

.....



## ITSUMUTILA ZE-SUMAN

*kapitalist sistimaren  
aurpegi galantakoaren  
zimurretatik irristaka  
malko ilun mikatza  
hatza luzatuz  
- uriaren ateetan  
zimaurrea kunetetan  
kanposantutik ehun metru-  
ihes doan gaztea  
eta bere neke  
bere nokierokoak*

Rosa Garmendiari

“lo supe por un almendro  
que la experiencia engañaba  
echaba blancas flores  
más su fruto amargaba  
como amargan tus amores”

Herrikoia

Kafé  
gaua tantoka  
barne patioan  
gorria eta beltza  
a duo  
pentsalizunak  
bertatik barrura  
eulitxoak ugaltzen  
diren gordelkuetarat  
non hautsontzietan malko  
pipermiñ eta koñak  
zipriztinak pausatzen  
direla astiro  
noiz sexu berdinekoen  
ordu aproposena den

hi beltzunearena  
hintzenan  
zakil eta odol ilun  
amorio kutsatuak  
borrastu geninanean  
beltzaz soilik ez  
nitxonan jabetu  
botoi oro zulatuz  
lore granateak besarkatuz

jaso dinat merezi ninana  
ni ez nitxon inorena  
haragi hondoan nebilen  
anbiguo biraka

---

Hainbeste giltza nituen  
egundaino eta  
alkoholaren  
errefuxioarena  
baizik ez zait geratzen  
patrikaren beltzaduran  
izterra zulatzen  
errauts zilindrikoari  
putz egin  
eta marmorezko  
mahaitxo  
errekatangularretik  
hurreko apalera  
eror arazi  
eta min  
egin diodanean

garbia garbitu ezak  
mostradoreko legena  
serbitzari nagiena  
hire itzala ez duk  
garbituko eta!

---



“glebako jopuak”

ba lehen imprecisioa ...  
eskolaurreko aitzin egunez  
mendi tontor gailurrean  
orduen dantzen fabriketxeak  
itzaletatik sorturiko ezpalak  
eguzki indargearen amoreaz  
atsegintzen ziren bitartean  
gizon zaldi goldearen  
estampa zeruaren kontra  
arrastaka errekortatzen produzitzen  
ikusi ote nuen

... eta egiaztapen bat  
oraindik han dihardu  
lehen goardiako erreleboak  
gau barrokoa errekgatzen  
kabitzen bada kontinente  
osoa traktorez ezin  
sosegatu lurra jiratzekotan  
hatsa aidea iraulitzekotan  
baina betiko leloesklabutza  
eguna ez behar  
hainbat ordudun ume

---

Panderoari ahoa  
zabaldu diote  
ixilarazi dute